

Usurbilgo Udala

2021EKO APIRILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontuhartzailea: Xabier Olano Jauregi

Ez dira bertaratu: Aroa Etxeburua Ugartemendia eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2021eko apirilaren 29an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.


Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO MARTXOAREN 22TIK APIRILAREN 23RA (2021/186-2021/340).

Alkatetzak 2021eko martxoaren 22tik apirilaren 23ra bitartean (2021/186-2021/340) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

2.- 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.



Usurbilgo Udala

Xabier Olano kontuhartzaileak adierazi du 2020ko Aurrekontuaren likidazioaren dekretuaren berri Ogasun batzordean eman zutela. Gaineratu du dekretu horrekin batera dokumentazio asko joaten dela eta horien artean Kontuhartzailetzaren txosten luze bat. Jarraian aipatutako txosten honen azken orrian jasotzen diren 2020ko Aurrekontuaren likidazioaren ondorio nagusiak azpimarratu nahi izan ditu.

2020ko Aurrekontuaren exekuzioa Covid19aren pandemiaren eraginez zaila eta konplikatu izan dela esan du, sarrerak uste baino gutxiago izan direla eta gastuak ajustatu behar izan direla. Ondorioz, sarreren exekuzioa %64,48koa eta gastuena %70,52koa izan dela aipatu du, biak ere aurreikusitakoaren nahiko urrun eta aurreko urteetan ohikoa denaren azpitik.

Aurrekontuaren exekuzioan urteko ekitaldia likidatzen dela baina itxitako ekitaldietatik datozen ondarrak baita ere, zentzu horretan bigarren ondorio bezala aipatzen du aurreko urteetatik ordaindu gabe zeuden saldo guztiak osorik ordaindu direla baina, aldiz, saldoak %25ean kobratu direla eta beste %12an anulatu direla zehaztu du.

Finantzaketa lotua duten gastuak egoten direla esan du, hau da, aurrekontuko gastu gehienak urteko sarrerekin finantziatzen dira, zenbait proiektu urte bat baino gehiagokoak izaten dira eta sarrerak eta gastuak ez dute koinziditzen urte naturaletan; horrek desbideratzeak sortzen dituela esan du eta horiek ere ajustatu behar izaten direla zehaztu du. Adibide garbiena Zumarte Musika Eskolarena dela esan du, oker ez badago 2017 amaieran mailegu bat egin zen eta hortik 2 milioi euro jaso ziren, aldiz 2020an gastatu dira 700.000 euro inguru eta ez dugu ezer jaso, aurretik jasota zutelako. Sortzen diren desbideratzeak ajustatu egin behar izaten direla esan du, eta laugarren ondorio bezala aipatzen duena da finantzaketa lotua duten inbertsio-gastuetan metatutako desbideratzeak 1.116.000 euro direla, 2020 ekitaldia soilik hartuko balute desbideraketak -329.000 euro izango lirakekeela esan du.

Bestetik, aurreko urteetatik pilatzen direla dio kobratu gabe dauden saldoak, batez ere, itxi diren enpresenak, hil diren herritarrenak... eta udal honen kasuan aspalditik metatzen datozenak, tartean ia duela 30 urtekoak. Horiek kobratzea oso zaila dela dio eta kasu askotan anulazioak egin behar izaten direla esan du, horretarako destinatzen direla dio 1.875.000 euro.

Aurrekontuko emaitzari begiratzen badiote emaitza metatua nahiko txukuna izan dela azpimarratu du, baina 2020ko emaitza negatiboa izan dela, lehen esan dutenagatik sarrerak uste baino gutxiago exekutatu direlako eta gastuak ere uste baino gutxiago baina ez horrenbeste. Eskerrak dio erreserba polita zegoen pilatua gerakin bezala eta gerakin hori erabili ahal izan duten. Aurretik zeukaten poltsa nahikoa izan dela dio aurtengo defizit hori berdintzeko eta gainera biak kontutan hartuta oraindik ere emaitza positiboa dela dio, 175.000 eurokoa.

Azken ondorio nagusi bezala aipatu du, ez soilik urteko likidazioa begiratuta, baizik eta aurretik zuten erreserba eta orain etorkizunerako nola gelditzen den, hor ikusten dute teoriar diruzaintza gerakin handia dutela baina horietatik bi zati mardul gorde behar direla dio, batetik, badagoelako osagai bat kobratzen zaila izango dena eta horretarako ajuste bat egin behar da eta, bestetik, badago beste zati bat inbertsioetarako aurretik metatutako desbiazioena dena eta horiek ezin dira nahi bezala erabili baizik eta erabili behar dira



Usurbilgo Udala

zehazki helburu horietarako. Beraz, 4 milioi horietatik aparteko kajoi batean jaso behar dituztela dio, batetik, 1.875.000 euro eta, bestetik, 1.116.000 pilatutako desbiderazioak edo martxan dauden inbertsioak ordaintzeko, beraz, erabilera librerako geratzen dena 1.849.000 euro dira. Beraz, justu xamar baina urtea txukun bukatu dela esan du, batez ere, aurretik erreserba polita zutelako.

Bestalde, momentuan indarrean ez daudenak baina udalaren egoerari buruz garrantzitsuak diren bi gauza aipatu ditu.

Batetik, zorpetze maila, azken urteetan zorpetze maila urtez urte jeixten ari direla esan du. Urte amaieran likidazioan zorpetze maila %15,23koa dela esan du, baxua, berez araudiak %75 artekoa izatea baimentzen duenean. Beheranzko tendentziarekin jarraituko balute, zorpetze eragiketarik egin gabe eta aurrekoak amortizatuz, 2027an zorpetzea 0 izango litzatekeela azpimarratu du.

Bestetik, zorpetze-araua eta baita gastu-araua, urtero-urtero oso zorrotz kontrolatu behar izaten dena, 2020an eta 2021ean betebeharra salbuetsita dagoela esan du, salbuespen egoera batean gaudela kontsideratzen delako.

Kontuhartzaileak esan du aipatutakoa dela argazki orokorra, Ogasun batzordean ere xehetasunak eman zirela eta nahi duenak dokumentazio guztia eskura duela.

Batzarkideei 2020ko aurrekontuaren likidazioaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

3.- HAAS-ETAKO A-59 (UGARTONDO) EREMUKO BARNE-ERREFORMARAKO PLAN BEREZIAREN TESTU BATEGINEKO EQ.1 PARTZELAN ZUZKIDURA-EKIPAMENDUA ERAIKITZEKO EXEKUZIO PROIEKTUA ONARTZEA.

Alkateak aipatu du hirugarren eta laugarren puntuak Txirikorda proiektuarekin lotuta daudela.

Bi puntuak Hirigintza batzordeak diktaminatuta datozela esan du, edonola ere, proiektuari buruzko zertzelada nagusi batzuk eman nahi izan ditu.

Alkateak adierazi du gaur Udalbatzarrak bi erabaki garrantzitsu hartuko dituela Txirikorda proiektua gauzatzen hasteko, batetik, exekuzio-proiektua onartzea eta, bestetik, exekuzio-proiektu hori gauzatzeko obrak egiteko lizitazioa martxan jartzeko pleguak onartzea.

Udal gobernu honentzako Txirikorda proiektua legealdi honetako egitasmo garrantzitsuena dela azpimarratu du. Era berean, inbertsio bezala ere garrantzitsua dela gaineratu du.

Alkateak aspektu sozialari erreparatu nahi izan dio eta proiektu sozial garrantzitsua dela esaten dutenean zergatik den azaldu du. Bi ezaugarri azpimarratu ditu, batetik, belaunaldi artekotasuna eta, bestetik, kolektibitatea.



Usurbilgo Udala

Proiektu hau bi behar soziali erantzuteko beharretik abiatzen dela esan du, batetik, emantzipatu nahian ari diren gazteei etxebizitza aukera bat emateko helburuz eta, bestetik, adineko pertsoneri eta batez ere bakarrik bizi diren pertsoneri beste aukera bat emateko helburuz. Bi behar horiek proiektu bakar batean lotzen dituzte, beraien ustez horrek dakarren indar gehigarri batekin. Pandemia honek zerbait agerian utzi badu da elkar zaintzaren beharra.

Alderdi urbanistikoari dagokionez, 16 etxebizitza direla esan du eta horri gehitu beharreko elkarbizitza komunitarioa egiteko espazioak.

Bestetik, gogorarazi du hau guztia abiatzen dutela konstruktoreekin sinatutako hitzarmen batetik, non finkatu ziren zeintzuk ziren bai konstruktoreen bai Udalaren betebeharrak. Konstruktoreen betebeharren artean zegoela esan du exekuzio proiektua idaztea. Hala ere, kontutan hartu behar dela esan du exekuzio proiektu honen oinarria dela bere garaian egin zen parte hartze prozesutik atera zen aurre-proiektua.


Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.04/2020-0265

Usurbilgo Udalak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak sustatu nahi ditu.

Horretarako, Santaiaigo Peñalba Garmendia, Manu Arruabarrena Florez eta Iñigo Peñalba Arribas arkitektoek Exekuzio Proiektua (2020ko abendua) idatzi dute.





Usurbilgo Udala

TXOSTEN TEKNIKOAK

Aurkeztutako proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, 2021eko apirilaren 19an ALDEKO txostena eman du. Hitzez hitz honela dio:

BULEGO TEKNIKOA **Udal Teknikariak Alkate andreari**

TXIRIKORDA-UGARTONDOKO EQ.1 PARTZELAKO ZUZKIDURA- EKIPAMENDUAREN EXEKUZIO PROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

DATA: 2021eko martxoaren 24an.
KOKAPENA: A-59 Ugartondo eremuko EQ.1 partzela
EXEKUZIO PROIEKTUAREN PEM: 1.963.514,12euro
HONDAKINEN KUDEAKETA AZTERLANA: 11.714,23EURO
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2020-265

AURREKARIAK

- 2020ko abuztuaren 4an Txirikorda-Ugartondoko EQ.1 partzelako zuzkidura-ekipamendua eraikitze exekuzio proiektuaren aurkezpena
- 2020ko urriaren 22an udal arkitektoaren aldeko txostena baldintzak ezarriz.
- 2020ko abenduaren 14an udal aparejadorearen txostena baldintzka ezarriz.
- 2021eko martxoaren 24an interesatuak Exekuzio Proiektua bisatua aurkeztu du.
- 2021eko apirilaren 14an interesatuak Telekomunikaziozko Proiektua bisatua aurkeztu du.
- 2021eko apirilaren 16an interesatuak Segurtasun eta Osasun Azterlana aurkeztu du.

TXOSTENA

Aurrekarietan aipatu bezala, 2021ko martxoaren 24an, Jauregizar S.L. enpresak Txirikorda-Ugartondoko EQ.1 partzelako zuzkidura-ekipamendua eraikitze exekuzio Proiektua aurkeztu du. Proiektua teknikari gaituek izenpetua eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia dago.

Exekuzio Proiektua osatzen dutenak dira: memoria, eranskinak (egituraren kalkulua, irisgarritasuna betetzearen fitxak, CTE.DB-HR betetzearen justifikazioa, CTE. HE0 eta HE1 betetzearen justifikazioa, eta eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria), baldintza plegua, aurrekontua, planoak, Hondakinen Kudeaketarako Azterlana, Kalitatearen Kontrolerako Plana eta Osasun eta Segurtasun Azterlana.

Txosten honen helburua da orain aurkezten den dokumentuak 2020ko urriaren 22an udal arkitektoak finkatutako baldintzak betetzen dituen aztertzea. Baldintza horiek aintzat hartuta, honakoak esan daiteke:

- *Proiektuak dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsia egotea. BETE DA.*




Usurbilgo Udala

- *Osasun eta Segurtasun Azterlana aurkeztea.* BETE DA.
- *Eremuaren mugaz gain, Xehetasun Azterlaneko fitxako lerrokadurak ere eraikinaren oinplantekin gainjarrita agertzen diren planoak aurkeztea.* Aurkeztu da II.2. planoan.
- *EKT-ren baldintzak betetzea:*
 - Behe solairuko sukaldea arriskurik gabeko gunea dela zuzendu da (memoria 59.orria).
 - Hustutze bideak planoan marraztu dira (V.2.6. planoak).
 - **Su-itzailgailuak** jarri dira arriskuko gune guztietan, pellet-en biltegian ezik. **Pellet biltegian ere jarri egin beharko da.** (V.2.6. planoak).
 - Hondakin gelak ur hartunea izango duela jaso da memorian (65.orria)
- *Telekomunikazioen proiektua aurkeztea.* BETE DA.
- ZERBITZUETAKO TXOSTENA: Azpiegituren inguruan, zerbitzuetako txostenera bideratzen da.
- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA ETA FIDANTZA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 26.199,06€-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (**31.438,87€**). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- OBREN EGIKARITZA EPEA: Proiektuaren egileekin hitzegin ostean batazbesteko 18 HILABETETAN finkatzen.
- BESTEAK: Obren egikaritzak ezinbestean indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko du (AASSTB, CTE, RITE, Tentsio baxuko Reglamentua, e.a.). Horren inguruan, esan beharra dago, txosten honetan aipatzen ez den gabezia edo lege hausterik balu proiektuak, txosten honek ez duela inplizituki onztat ematen eta ezinbestean, exekuzio proiektuan eta obra egikaritzan zuzendu beharko dela.

ONDORIOA

Goian aipatutakoari jarraiki, aurkeztu den Exekuzio Proiektua bisatuari ALDEKO txostena idazten zaio, beti ere obren egikaritzan onartutako Exekuzio Proiektua eta indarrean den araudi aplikagarria betetzeko baldintzapean.



Usurbilgo Udala

Horrekin batera, Pellet biltegian su-itzalgailua jarri beharko dela gogorarazten da.

Usurbilen, sinaduraren datan.
HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA/ UDAL
ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Aurkeztutako proiektua aztertu ostean, hirigintza teknikariak, Amaia Ilarreta Izeta andereak, 2021eko otsailaren 22an azpiegiturei dagokion txostena eman du. Hitzez hitz honela dio txostenak:

OBRA HANDIAK

TXIRIKORDA BELAUNALDI ARTEKO ZUZKIDURA-BIZITOKIAK

KOKAPENA: Ugarte kalea eta Lakizar kalearen izkina. A-59 Ugartondo, Usurbil.

ESKATZAILEA: Hirigintza Saila

SUSTATZAILEA: Usurbilgo Udala

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.05/2020-0265


AURREKARIAK

- Usurbilgo Udaleko Hirigintza Sailak eskatu zuen belaunaldi arteko zuzkidura-bizitokien “Txirikorda” proiektuko exekuzio proiektua aztertu eta udal zerbitzuetako sareen lotuneei buruzko txostena garatzea.
- Zerbitzuak eta Mantenua saileko buruak 2020ko abenduaren 14an idatzitako txostenean honako dokumentazio osagarria hau eskatu zuen:
 - x Eraikinaren soto solairuko euri urak nora bideratzen diren zehaztuko da dagokion planoan.*
 - x Eraikinaren euri urak urbanizazioko sare nagusiarekin non lotuko diren kokapen planoan, bai behe solairuan eta baita soto solairuan ere.*
 - x Eraikinaren ur zikinak urbanizazioko sare nagusiarekin non lotuko diren kokapen planoan, soto solairuan.*

**Oharra: Usurbilgo Udal brigadak eskatu du sanitario edo elementu bakoitza zuzenean lotzea dagokion zorrotenera/bajanterera. Bestela esanda, ez dira elementu ezberdinak batu eta hodi baten bidez bideratuko zorroteneraino/bajanteraino. Mantenua errazten du.*
- 2021eko otsailaren 18an, Estitxu Aramburu Iruretagoyenak, Jaureguizar SL enpresaren izenean, dokumentazio osagarria aurkeztu du.

TXOSTENA

Aurrekarietan esan bezala, Estitxu Aramburu Iruretagoyena andereak, Jaureguizar SL enpresaren izenean, idatzi bat aurkeztu du 2020ko abenduaren 14ko txostenean Zerbitzuak eta Mantenua saileko buruak eskatutako dokumentazio osagarriari erantzuteko asmoz. Idatzia belaunaldi arteko zuzkidura-bizitokien “Txirikorda” exekuzio proiektuaren egileek izenpetua dago, eta honela dio:



Usurbilgo Udala

- *En los planos de proyecto está suficientemente descrita la conexión del saneamiento de pluviales y fecales a la red municipal, que además es objeto de Proyecto de Urbanización de Ugartondo, e incluso, está parcialmente ejecutada.*
- *En el presupuesto se detallan las partidas referidas a los 3 temas como puede comprobarse con la lectura de las partidas 17.01.13 a 17.01.21 y 17.02.08 a 17.02.11.*

No han de resultar en consecuencia precios contradictorios.

Ez da plano berririk aurkeztu, baina kontuan izanik azpiegituren sare orokorra Ugartondo eremuko Urbanizazio Proiektuan jasotzen dela, eta “Txirikorda” exekuzio proiektuaren aurrekontuan, eraikina eta sare orokorraren arteko konexioa xehakatzzen dela, eraikinaren instalazio eta sare orokorraren arteko konexioa bermatzen dela iritzi da eta, hortaz, aurkeztu dena ontzat ematen da.

Edonola ere, azpimarratu nahi da “Txirikorda” eraikinaren egikaritzean, euri urak eta ur zikinak Ugartondo eremuko Urbanizazio Proiektuan xehakaturako azpiegitura sarera bideratuko direla, eraikinaren saneamenduaren instalazioak eta sare orokorraren arteko konexioa bermatuz.

Horrez gain, aipatutako 2020ko abenduaren 14ko txostenean saneamendu elementuen inguruan jasotzen zen oharrari erantzunez, honela esaten da aurkeztu berri den idatzian:

(...) el informe contiene una nota en la que se recoge la opinión de las brigadas municipales en relación con las bajantes, solución que creemos que debe mantenerse tal y como figura en proyecto.

Ur zikinen ebakuazioaren diseinua DB-HS-ren 5. atalean araututa dago. 3.3.1.2 *Redes de pequeña evacuación* atalean esaten da, banakako sifoiak duten elementuen kasuan, komunarena izango dela zuzenean zorrotenera bideratuko den hustubidea; gainontzeko elementuen inguruan zehazten ez denez, ontzat ematen da Exekuzio Proiektuan jasota dagoena.

Udal azpiegiturek bete beharreko baldintzei dagokienez, aurretik aipatutako txostenean jasotakoa berresten da:

UR SAREA:

- *Hodi guztiak burdinurtuzkoak izango dira eta 150 mm diametroa izango dute.*
- *Hartunetako hodiak polietilenoazkoak izango dira, PN 16 kg/cm². Ur-ahoen hartuneak polietilenoazkoak izango dira, DN 45-koak.*
- *Polietilenoazko hodiekan, Greiner etxeko latoizko piezak erabiliko dira lotunetan eta edozein desbideratzetan.*
- *Jarriko diren kutxeta tapa guztiak Fundibide etxekoak izango dira eta Usurbilgo Udalaren armarria eramango dute. Testua berriz ondokoa izango da: Edateko ura - Usurbilgo Udala*
- *Ur-ahoen kutxeta tapak kolore gorrikoak izango dira eta Fundibide etxekoak izango dira. Usurbilgo Udalaren armarria eramango dute. Testua berriz ondokoa izango da: Ur hartunea - Usurbilgo Udala.*



Usurbilgo Udala

UR KONTAGAILUAK:

- Hartunea burutuko da, ur horniketako CTE-DB-HS4 oinarritzko arauen arabera.
- Ur-hartunea ur sarean egingo da, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian.
- ARIES etxeko kontagailua instalatuko da eta IZAR irrati bidezko irakurketa modulua jarriko da.
- Kontagailua proiektuak adierazten duen tokian kokatuko da.
- Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik. Giltzak TMM PN60 Manterola etxeokak izango dira.
- Itzultze aurkako balbula instalatuko da.
- Edateko ura hornitu baino lehen, instaladoreak prestatu eta Eusko Jauriaritzako Industria Sailak onartu eta zigilaturiko hartuneko buletina aurkeztuko da Usurbilgo Udalean.

SANEAMENDUA:

- PVC zurruna motatakoa izango da hoditeria.
- Gutxieneko diametroa (minimoa) 315 mm-koa izango da.
- Kutxetak hormigoizkoak izango dira.
- Kutxeta tapak: Fundibide etxeokak eta Usurbilgo armarrria eramango dute. Testua berriz ondokoa izango da:
 - o Euri urak - Usurbilgo Udala
 - o Ur zikinak - Usurbilgo Udala

BESTEAK:

- Espaloietako kutxeta tapak burdinurtu harikorrekoak izango dira 45x45 cm-koak.
- Errepideko kutxeta tapak burdinurtu harikorrekoak izango dira, errefortzatuak eta 60cm-ko diametrokoak.

Usurbilen, 2021eko otsailaren 22an
HIRIGINTZA TEKNIKARIA
Amaia Illarreta Izeta

Exekuzio Proiektua onartzeko eskuduna Usurbilgo Udaleko Plenoa da.

Gauzak horrela, udal teknikariek txostenak irakurri ondoren, Hirigintza Batzordeak, 2021eko apirilaren 23an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria, Mirari Azurmendi eta Patxi Suárezen aldeko botoekin, aho batez, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-ekipamendua eraikitzeko Exekuzio Proiektua onartzea, udal teknikariek ezarritako baldintzekin.”

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zampirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

4.- HAASETAKO A-59 (UGARTONDO) EREMUKO BARNE-ERREFORMARAKO PLAN BEREZIAREN TESTU BATEGINEKO EQ.1 PARTZELAN ZUZKIDURA-ALOJAMENDUAK EGITEKO EXEKUZIO OBRA KONTRATATZEA.

Alkateak aipatu du 18 hilabeteko obra batetaz ari direla esan du, ia 2 milioiko inbertsio batetaz eta BEZik gabeko obra batetaz.

BEZik gabeko obra izango dela-eta, Kontuhartzaileak egindako lanketa baten ondorioz ikusten zela dio sujeto pasiboko obra izan zitekeela ulertzen zutela. Interpretazio hori zuzena ote zen galdetuz galdera binkulante bat egin zitzaion Foru Aldundiko Ogasun batzordeari eta hauen erantzuna baiezkoa izan zela aditzera eman du.

Gaineratu du 2 milioi hauek aurrera atera direla Udalak dirurik bideratu gabe, izan ere hitzarmenetik 1.427.000 euro jasoko dira eta Eusko Jaurlaritzako dirulaguntza 640.000 euro izan ziren, beraz, inbertsio hau %100ean finantzatu ahal izango duela Udalak.

Hurrengo urtean Udalak ekipamendurako diru-partida bat bideratu beharko duela esan du, oraindik zehaz-mehatz ez dakiten arren zenbat izango den 200.000 euro inguru aurreikusten dituzte.

Amaitzeko, obrak udan hastea aurreikusten dutela adierazi du.

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: ID.05/2021-0054

Kontratuaren gaia helburua:

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra.

Kontratatzearen beharra edo egokitasuna:

Esleipen honen helburua A-50 UGARTONDO eremuan egin beharreko zuzkidura alojamenduan obrak egikaritzea da, indarrean dagoen eremuko Plan Bereziari jarraituz.



Usurbilgo Udala

Ugartondo eremuaren garapena Kontzertazio Junta bidez egiten ari da gaur egun. Garapen fasean dago, dagozkion hirigintza tresnen eta proiektuen izapidetzeak egin ostean, 2019ean hasi ziren egoitzazko eraikuntzei zegozkien obrak. Aipatu urte hasieran, Usurbilgo udalak parte-hartze prozesua jarri zuen martxan, A- 59 eremurako Arau Subsidiarioen antolamenduak aurreikusten zuen ekipamenduaren programa eta diseinua zehazteko, aurrez ekipamendu hau pertsona gazte eta adineko ez-dependenteen zuzkidura-alojamendua izango zela finkatuta.

Prozesu honen ondorioz A-59 Ugartondo eremuko zuzkidura alojamenduen Exekuzio Proiektua erredaktatu zen. Usurbilgo Udala eta eremuko Kontzertazio Juntaren artean izenpetutako hitzarmenaren arabera, proiektuaren erredakzioa Juntak hartuko zuen bere gain, nahiz eta lursailaren titularitatea eta obren egikaritzea eragilea publikoa izan, Udala. Proiektu hau da orain esleitzen diren obren oinarria.

Kontratu mota:

Obra kontratua.

Prozedurari dagokionez

Espediente-mota:

Ohiko tramitazioa du.

Esleipena egiteko bidea eta modua:

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak jasotako prozedura ireki bidez.

Baldintza Orriak:

Espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen eta Baldintza Teknikoen Orriak doaz.


Araudi aplikagarria

1. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea -SPKL 2017-
2. Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra - HAKLEO- onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua

Txostenak

- Idazkariaren lege txostena.
- Kontuhartzaileak eginiko proiektuaren bideragarritasun txostena.
- Zerbitzuaren txostena.

Kontratua esleitzeko eskuduntza



Usurbilgo Udala

9/2017 Legearen 2. xedapen gehigarrian xedatutakoa ikusita, kontratua esleitzeko eskuduna Usurbilgo Udalbatza Plenoa, kontratazio honek udal aurrekontuaren errekurtsio arruntetik %10etik gorakoa denez.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2021eko apirilaren 23an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria, Mirari Azurmendi eta Patxi Suárezen aldeko botoekin, aho batez, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: Prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra kontratatzekeo espedienteari onespena ematea.

BIGARRENA: Aipatu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriei eta Preskripzio Teknikoen orriei onespena ematea.

HIRUGARRENA: Udal aurrekontuan 1.963.514,12 euroko gastua onartzea hurrengo kontu-sailaren kontura:

- 1.6000.622.152.01.02.2020 (355.750 euro)
- 1.6000.622.152.01.01.2021 (1.607.764,12 euro)

LAUGARRENA: Alkateari honako eskumen eskuordetzea egitea:

- Eskaintza onenaren izendapena eta lizitatzaille honi egin beharreko errekerimendua, behin agiriak jaso ondoren Udalbatzari esleipen proposamena bideratuz.
- Izapidetza arrunteko beste edozein eskumen osagarri.


BOSGARRENA: Lizitazioa udaleko kontratatzaile profilean argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- MOZIOA: MENDIKO ABELTZAINZAREN ETA OTSOAREN POPULAZIOAREN KONTROLA.



Usurbilgo Udala

Mozioa batzorde informatzaile batean aztertu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek aho batez plenoan tratatzea erabaki dute.

Joxe Mari Iribar-ek hitza hartu du eta adierazi du EH Bildu udal taldea abstenitu egingo dela. Udal kudeaketa gainditzen duen gaia dela dio, udalaz gaindi konponbidea aurkitu behar zaion gaia, zentzu horretan ere Legebiltzarrean eztabaida eman berria dela esan du. Abeltzaintza estentsiboaren alde daudela esan du eta bide horretan lana egingo dutela esan du, horrek ez duela ekiditen dio otsoaren bizi-irautea ere bermatu behar ez denik. Arazoa konpontzeko hego Euskal Herri mailan alde guztiak, abeltzainak, ekologistak, erakunde publikoak, barne-bilduko dituen mahai bat eratzea beharrezkoa dela uste du.

Bestetik, ez herrian ez Euskal Herrian otsoaren arazorik ez daukatela gaineratu du.

Josune Urkolak hitza hartu du eta adierazi du egia dela momentu honetan otsorik ez dagoela baina ez badira neurri batzuk hartzen etorri daitezkeela. Beraiek alde bozkatuko dutela esan du.

Batzarkideek, ENBA eta EHNE nekazari sindikatuek aurkeztutako mozioa gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Mendiko abeltzaintzaren eta otsoaren populazioaren kontrolaren aldeko mozioa

2020ko otsailaren 5ean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuak Otsoa espezie mehatxatuen Euskal Katalogoan interes bereziko kategorian sartzeko tramitazioaren hasera onartzea erabaki zuen, Naturzaintza–Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordearen gehiengoa aurka bozkatu arren.

2021eko otsailaren 4an Transitzio Ekologikoa eta Erronka Demografikorako ministeritzako Natura Ondarearen batzordeak, otsoa babes bereziko erregimenean dauden espezieen zerrendan sartzea erabaki zuen, otsoaren populazioaren %95a baino gehiago ordezkatzeko duten elkargo autonomoen ordezkariak aurka bozkatu arren.

Aurrez aipatutako Batzordearen diktamena ez loteslea bada ere, Ministeritzako arduradun nagusien hitzetan, batzordeak hartutako norabideari eutsi egingo diote azken muturreraino.

Erabakia behin betikoz hartuko balitz Euskadiko abeltzaintza estentsiboarengan ondorioak larriak eta berehalakoak lirateke, otsoen populazioa areagotuko litzakeelako gure mugakide diren elkargo autonomoetan eta honenbestez, Euskadin otso populazioak sartu eta egonkortzeko arriskua areagotuko genuke, eta honek, ondorio larriak ditu, bai gure mendiko abeltzaintza estentsiborako bai ardi latxa, babestu nahi diren mendiko larretokiak eta Idiazabal gaztarentzat.

Une honetan, azienda (ardiak, behiak, behorrak, pottokak, ...) mendian kudeatzen dugun abeltzainok, kezkatuta eta beldurtuta gaude otsoaren zabalkundearen aurrean orain arte bititu dugun maneju estentsiboaren amaiera suposa dezakeelako eta honenbestez,



Usurbilgo Udala

erabakiaren azken helburua hori ez bada ere, abelzaintza estentsiboarekin amaitu eta erabateko maneju intentsibora joan beharko dugulako.

Honenbestez, honako mozioa onartu du gehiengoz:

1- Usurbilgo Udalak bere konpromezu tinkoa agertu nahi du mendiko abelzaintzarekin eta gure mendiak larretzen dituzten ardiak, ahuntzak, behiak eta zaldiekin. Aziendaren maneju estentsiboak, kalitatezko eta elikagai osasuntsuen ekoizpenarekin batera, ingurunearen zaintza eta kudeaketarako tresna baliagarrienetarikoda delako eta honenbestez, mendiko abelzaintzarako mehatxua den otsoaren populazioa kontrolatuko dituen neurriak eta araudiak eskatzen ditu.

2- Usurbilgo Udalak helaraziko dio Transitzio Ekologikoa eta Erronka Demografikorako ministeritzari, mendiko abelzaintzaren aldeko apustua egiten duela eta honenbestez, otsoaren babesaren areagotzeko erabakiaren aurka eta otsoaren populazioa kudeatu ahal izateko baliabide guztiak har ditzala kontuan, besteak beste, ehiza.

3- Udalak helaraziko dio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailari ez dezala otsoa babes bereziko espezieen katalogoan sartu eta honekin otso populazioei sarrera eta egonkortzea erraztu. Ez dezan kolokan jarri abeltzaintza estentsiboa. Gurea bezelako lurralde txikian, mendiko abeltzaintza elkarbizi ezinezko praktika da eta otso populazioekin.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Kontrako botoa: Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

Beraz, mozioa gehiengoz onartu da.

6.- ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA ETA ZINEGOTZI BERRIAREN KARGUA HARTZEKO IZAPIDETZA HASTEA.

Alkateak esan du gaur pena haundiz esan behar dutela Aroa Etxeburua zinegotziak kargua utzi duela. Azken hilabete hauek ez direla errazak izan Aroarentzat, anaiaren heriotzak eraginda tartean, berak hala adierazita ez da indarrez sentitzen kargu honekin jarraitzeko eta egoera honetan bere erabakia ulertu eta errespetatu baino ezin dutela egin adierazi du.

Aroaren gaztetasunak, frexkotasunak, indarrak, bai gobernu taldeari, baina orohar udal jardunari ekarpen handia egin diezaiokela uste dute eta penaz hartu dute erabakia.



Usurbilgo Udala

Aroaren tokia EH Bilduren hautets-zerrendan bederatzigarren tokian zegoen pertsonak, Ainhoa Arrozpidek, hartuko duela jakinarazi du alkateak. Alkateak berak asko estimatzen duen pertsona dela Ainhoa azpimarratu du, gainera militante eta ekintzaile nekazina.

Gaineratu du Ainhoa Arrozpidek ibilbide luzea eta oparoa duela herrigintzan, gazte-gaztetatik ibili dela bai gazte mugimenduan lehenik eta gerora gizarte arloko hamaika jarduera eta dinamiketan.

Prozesua martxan dagoela eta kargua maiatzeko plenoan hartuko duela zehaztu du.

Idazkariak adierazi du orain espedientea Madrilera bidaliko dela, kredentziala nahiko azkar bidaltzen dutela eta aurreikusten da maiatzeko plenorako edukitzea.

“Esp. zk.: ID.02/2021-0061

Aurrekariak

2019ko maiatzaren 26ko Udal hauteskundeetan EH Bildu alderdi politikoak aurkeztutako zerrendako lehenengo zortzi hautagaiak hautatuak izan ziren Usurbilgo Udalean zinegotzi izateko; tartean, bosgarren hautagaia zen Aroa Etxeburua Ugartemendia.

Ondoren, 2019ko ekainaren 15ean izandako Udalbatzarrean zinegotzi kargua hartu zuten zortzi hautatuek.

Orain, 2021eko apirilaren 12an aurkeztutako idatzian Aroa Etxeburua Ugartemendiak zinegotzi karguari uko egin dio, arrazoi pertsonalak argudiatuta.

Era berean, EH Bilduko alderdi politikoaren zerrendan aurkeztu zen hurrengo hautagaiak, Ainhoa Arrozpide Landak idatzia aurkeztu du non adierazten duen zinegotzi kargua onartzen duela eta kargu hau hartzeko legeak ezarritako bateraezintasun arrazoiren batean sarturik ez dagoela.

Hau guztia horrela, honen berri ematen zaio Udalbatzarrari:

LEHENA: EH Bildu alderdiko zinegotzia den Aroa Etxeburua Ugartemendiak dimisioa aurkeztu duela eta, beraz, une honetatik aurrera ez dela udal honetako zinegotzia.

BIGARRENA: Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatuko zaio EH Bilduko alderdiaren zerrendako hurrengo hautagaia den Ainhoa Arrozpide Landaren zinegotzi izendapena egiteko dagokion kredentziala luzatu dezala, kontutan izanik honek egin duen aitorpena esanez zinegotzi kargua hartzeko legeak ezarritako bateraezintasun arrazoiren batean sarturik ez dagoela.”

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.



Usurbilgo Udala

7.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez dago.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:33tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.